



Idiazabalgo Udala

(GIPUZKOA)



ALKATETZA DEKRETUA 2017 / 295

2017ko uztailaren 4koa

IORITZ IMAZ BAZTARRIKA jaunak, Idiazabalgo Alkate udal buruak, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren II. Xedapen Gehigarriaren arabera,

IKUSIRIK

I. Idiazabalgo Alkate udal buruak, 2017ko apirilaren 28ko 159/2017 Dekretu bidez erabaki zuen Idiazabalgo udalerriko Etzegarate eta Santa Barbara eremuetako eta beste herri bide batzuk aurretiaz mantentzeko eta kontserbatzeko materialak hornitzeko eta garraiatzeko kontratuaren administrazio espedientea hasia, administrazio-baldintza zehatzen orria eta preskripzio teknikoaren orria eta iragarkia GAO-n argitaratzea.

II. Iragarkia argitaratu da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2017ko maiatzaren 24an, 98. zenbakian.

III. Honako bi lizitzaile hauek aurkeztu dituzte eskaintzak:

1.lotea: Legarra, hondarrak, birrindutako harriak eta agregakinak:

-Ofitas de URRETXU S.L.U. (2017/06/07an, 319. zk.ia)

2.lotea: Hormigoia:

-Iparragirre eraikuntza lanak (2017/06/08an)

IV. Kontratazio Mahaiak 2017ko ekainaren 23an egin du proposamena, ekonomikoki onurarik handien duen eskaintza aurkeztu duen lizitzaileari **1.lotea:** Legarra, hondarrak, birrindutako harriak eta agregakinak: Ofitas de URRETXU. kontratua esleitzeko.

V. Kontratazio prozedura jarraitu ondoren, Alkate Lehendakariak ekainaren 23ko 2017/279 Dekretu bitartez, honako hau erabaki du:

- ❖ Nortasun Agiri Nazionalaren (NAN) kopia. (Beste baten izenean agertuz, NAN eta horretarako eskuetsitako ahalordea aurkeztu beharko dira).
- ❖ Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Batertuaren 60. atalean adierazitako kontratatzeke debekurik ez dutelako aitortpena, 1. Eranskinean agertzen den ereduaren arabera.
- ❖ **Enpresariaren kaudimena**, administrazio-baldintza zehatzen orriaren 10.3 klausulak xedatutako moduan.
- ❖ Bere **zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean** dituela ziurtatzen duen agiria;
- ❖ **Ekonomi Jardueren gaineko Zergan, kontratuaren gaiari dagokion epigrafean hain zuzen ere, alta eman** diotela frogatzeko, lehiatzaileak alta-agiria aurkeztuko du, uneko ekitaldian bertan hartua badu, edo **EJZren azken ordainagiria**, gainerako kasuetan. Beti ere, **zerga horren matrikulan bajarik hartu ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena** erantsiko du.
- ❖ Kontratuaren xedea duen enpresak estaldura ekonomiko nahikoa duen **erantzukizun zibileko aseguruaren poliza HIRUREHUN MILA EURO (300.000 €)** harpidetuta daukala egiaztatzen duen dokumentazioa, **eta** aseguruaren ordainketaren egunean dagoela ziurtatzen duen frogagiria.
- ❖ **MILA LAUREHUN ETA HIRUROGEI ETA BOST EURO LAUROGEI ZENTIMO (1.465,00 €)**ko bermea ezartzea.

BIGARRENA.- Interesdunari probidentziaren berri ematea, eta jakinaraztea, tramite-egintza izaki, ezin dela errekurtsorik aurkeztu horren kontra.

Errekerimendua ezarritako epean behar bezala betetzen ez badu, lizitzaileak bere eskaintza atzera bota duela ulertuko da, eta dokumentazio bera eskatuko zaio hurrengo lizitzaileari, eskaintzak sailkatu diren hurrenkerari



jarraituz. Hori egon ezean, prozedura hutsik geldituko da.

Dokumentazioa aurkeztuz gero, administrazio-pleguaren 16. klausulak xedatutakoaren arabera, esleipendunak udaletxean agertu beharko du hamar egun balioduneko epean, kontratua formalizatzeko, eta publizitate ofiziala eta kontratuaren formalizazio-iragarkiak aldizkari argitaratzearen gastuak ordaintzeko (halakorik balego, eta une horretan zenbatesterik balego). Une horretan bertan zenbatesterik ez balego, zenbatekoa ezagutuko den unera arte atzeratuko da ordainketa.

HIRUGARRENA. Idiazabalgo Udalbatza Plenoari horren berri ematea”

VI. Ofitas de Urretxu S.L.U. lizitaztaileak aurkeztu du dokumentazioa 2017ko ekainaren 27an (363. zk.ia) eta egiaztatu enpresariaren kaudimena, administrazio-baldintza zehatzen orriaren 10.3 klausulak xedatutako moduan.

LEGE TXOSTENA

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

I. Eskumena. Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren II. Xedapen Gehigarriaren arabera, Alkate-udalburuak du eskumena kontratua esleitzeko.

II. Araubidea. Aipaturiko espedientean, indarrean dagoen legedian ezarritako dokumentuak jasota daude. Esleipen-espedientean; kontratua jardunbide ireki bidez bideratu dela egiaztatu da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 138.2, 157 eta 197. artikuluetan aurreikusitako eta arautu bezala. Izapideak ohikoak izan direla eta esleipendunaren aukeraketa Administrazio Baldintza Zehatzen Agiriaren 12. klausulak ezarritako esleitzeko irizpideetan oinarritu dela..

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 151. 4 atalak honela dio:

<p>“4. Edozein kasutan, jakinarazpenean behar bezainbesteko informazioa eman beharko da, kanpoan utzitako edo baztertutako lizitaztaileari edo hautagaiari, 40. artikulua arabera, esleipen-erabakiaren aurka arrazoitutako errekurtso bat jartzea ahalbidetzeko.</p> <p>Bereziki, ondorengo alderdiak adierazi beharko dira:</p> <p>a) Baztertutako hautagaiei dagokienez, haien hautagaitza atzera botatzeko arrazoiaren azalpen laburra.</p> <p>b) Esleipen-prozeduratik kanpo utzitako lizitaztaileei dagokienez, haien eskaintza ez onartzeko arrazoiak; horiek ere laburtuta.</p> <p>c) Edozein kasutan, esleipendunaren izena eta, orobat, zeintzuk izan diren esleipendunaren proposamenaren ezaugarri eta abantaila erabakigarriak, gainerako lizitaztaileek aurkeztutako proposamenen aurrean esleipendunarena lehenesteko.</p> <p>Esleipenaren motibazioan 153. artikuluan jasotako</p>	<p>“4. La adjudicación deberá ser motivada, se notificará a los candidatos o licitadores y, simultáneamente, se publicará en el perfil de contratante. La notificación deberá contener, en todo caso, la información necesaria que permita al licitador excluido o candidato descartado interponer, conforme al artículo 40, recurso suficientemente fundado contra la decisión de adjudicación.</p> <p>En particular expresará los siguientes extremos:</p> <p>a) En relación con los candidatos descartados, la exposición resumida de las razones por las que se haya desestimado su candidatura.</p> <p>b) Con respecto de los licitadores excluidos del procedimiento de adjudicación, también en forma resumida, las razones por las que no se haya admitido su oferta.</p> <p>c) En todo caso, el nombre del adjudicatario, las características y ventajas de la proposición del adjudicatario determinantes de que haya sido seleccionada la oferta de éste con preferencia a las que hayan presentado los restantes licitadores cuyas ofertas hayan sido admitidas.</p> <p>Será de aplicación a la motivación de la adjudicación la</p>
--	--



isilpekotasun-salbuespena aplikatu beharko da.	excepción de confidencialidad contenida en el artículo 153.
Edozein kasutan, jakinarazpenean eta kontratatzailearen profilean, 156.3 artikulua araberako esleipena zer epean formalizatu behar den zehaztu beharko da.	En todo caso, en la notificación y en el perfil de contratante se indicará el plazo en que debe procederse a su formalización conforme al artículo 156.3.
Hartzaileak jakinarazpena jaso duela ziurtatzen duen edozein bitartekoren bidez egingo da jakinarazpena. Bereziki, posta elektronikoki bidez egin daiteke, lizitatu edo hautagaiek proposamenak aurkezterakoan adierazitako helbidera bidaliz, Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa Izateari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legearen 28. artikuluan ezarritako baldintzetan. Hala ere, jakinarazpena errefusatuzat –azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.4 artikuluan aurreikusitako ondorioekin– jotzeko epea bost egun izango da”.	La notificación se hará por cualquiera de los medios que permiten dejar constancia de su recepción por el destinatario. En particular, podrá efectuarse por correo electrónico a la dirección que los licitadores o candidatos hubiesen designado al presentar sus proposiciones, en los términos establecidos en el artículo 28 de la Ley 11/2007, de 22 de junio, de Acceso Electrónico de los Ciudadanos a los Servicios Públicos. Sin embargo, el plazo para considerar rechazada la notificación, con los efectos previstos en el artículo 59.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, será de cinco días”.

III. Kontratazio Mahaiak 2017ko ekainaren 23an egindako bileran erabaki zuen onartzea Ipark taldeak 2017ko ekainaren 22ko txostenean egindako balorazio teknikoa, administrazio baldintza orriaren 12.2 A hizpaktek ezarritako irizpideak kontuan harturik.

“INFORME TÉCNICO / TXOSTEN TEKNIKO

Gaia: Idiazabalgo udalerriko Etzegarate, Santa Barbara eremuetako eta beste herri bide batzuk aurretiaz mantentzeko eta kontserbatzeko materialak hornitzeko eta garraiatzeko akordio markoaren lizitazioan aurkeztutako proposamen teknikoaren balorazioa.

Balorazio hau egingo da apirilaren 28ko 159/2017 Alkatetza Dekretuak onartutako administrazio baldintza zehatzen orriaren 12.2 A) klausulak xedatutakoaren arabera (preskripzio teknikoaren orriaren 10. klausulan errepikatuta dago).

“12. KONTRATUA ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

(Lote bakoitzean erabiliko dira)

A) Automatikoki ebaluagarriak ez diren irizpideak: 49 puntu

- 1) Horniduraren deskripzioa: osaketa, berezitasun eta ezaugarri tekniko, funtzional, eta ingurumenekoak: 16 puntu
- 2) Garraioaren programa eta hornidura eskuragarri jartzeko epea: 14 puntu
- 3) Arreta pertsonalizatua, komunikazio eta gorabeherak konpontzeko protokoloa: 10 puntu
- 4) Dumper-ren ezaugarri tekniko eta ingurumenekoak: (aintzinasuna, erregaia, ibilbidea, ingurumen ezaugarrien araberrako zerga hobariak izatea): 9 puntu

Administrazioak diskrezionaltasun teknikoa du eta balorazioa arrazoitu behar du.

Lizitazio honetarako honako BI lizitatu hauek aurkeztu dituzte eskaintzak:

1.LOTEA:

- Ofitas de URRETXU, S.L.U. (2016/06/07an, 319. zk.ia)



- Iparragirre Eraikuntza Lanak (IZF: B20190674). (2016/06/08an)

2.LOTEA:

- Iparragirre Eraikuntza Lanak (IZF: B20190674). (2016/06/08an)

Bi enpresek aurkeztutako dokumentazioa administrazio baldintzen orriaren 11. klausulak eta preskripzio teknikoen orriaren 9. klausulak xedatutakoari jarraituz.

BALORAZIOA

1.- . zk.ko. lotea: **MATERIALEN HORNIDURAREN KONTRATAZIOAN, PROZEDURA IREKI BIDEZ, PARTE HARTZEKO PROPOSIZIOA, ETZEGARATE ETA SANTA BARBARA EREMUE TAKO ETA BESTE HERRI BIDE BATZUEN AURRETIAZKO MANTENTZE- ETA KONTSERBAZIO- LANAK EGITEKO**

	OFITAS DE URRETXU, S.L.U.	IPARRAGIRRE ERAIKUNTZA LANAK, S.L.
A) Automatikoki ebaluagarriak ez diren irizpideak: 49 puntu		
Horniduraren deskripzioa: osaketa, berezitasun eta ezaugarri tekniko, funtzional, eta ingurumenekoak	Deskribatu dituzte materialen ezaugarriak, harrobiko ustiaketa sistema, instalakuntzak eta produkzioa nolakoa den zehaztasun osoz eta aurkeztu dute jardura legezkoa dela adierazten duen dokumentazioa. (ingurumen- inpaktuaren azterketaren onarpena, etab.) Horrekin, aurkeztu dituzte material bakoitzaren argazkiak, fitxak, egindako saiakuntzen datuak eta kalitate markak (CE, UNE, ...)	“Todo uno” materialaren fitxa aurkeztu dute baina ez dute bestelako zehaztapenik azaldu hornidurari buruz
Garraioaren programa eta hornidura eskuragarri jartzeko epea	Erantzun epea 24h-koa gehienez. Etenik gabeko horniduraren proposamena eta programazioa egin dute. 10 hilabeteko horniduraren epe eta ezaugarriak zehaztu dituzte	Ez dute hornidura epeen proposamenik ez eta programarik aurkeztu.
Arreta pertsonalizatua, komunikazio eta gorabeherak konpontzeko protokoloa	Bi langileen kontaktuak aurkeztu dituzte materiala eskatu behar denerako. Ordutegia 8:00-20:00.	Pertsona baten kontaktua aurkeztu dute. Ordutegia: 8:00-18:00



	Egokiena 24h aurretik eskatzea da, baina aukera ematen dute egunean bertan eskatu eta hornitzeko	
Dumper-ren ezaugarri tekniko eta ingurumenekoak: (aintzinasuna, erregaia, ibilbidea, ingurumen ezaugarrien araberako zerga hobariak izatea):	<p>Camión dumper – 2009 urtea Diesela</p> <p>Camión dumper – 1999 urtea Diesela</p>	<p>Camión hormigonera transformado en camión basculante – 2003 urtea Diesela</p> <p>Tracto camión – 2002 urtea Diesela.</p>

	OFITAS DE URRETXU, S.L.U.	IPARRAGIRRE ERAIKUNTZA LANAK, S.L.
A) Automatikoki ebaluagarriak ez diren irizpideak: 49 puntu		
Horniduraren deskripzioa: osaketa, berezitasun eta ezaugarri tekniko, funtzional, eta ingurumenekoak	16	4
Garraioaren programa eta hornidura eskuragarri jartzeko epea	14	0
Arreta pertsonalizatua, komunikazio eta gorabeherak konpontzeko protokoloa	10	4
Dumper-ren ezaugarri tekniko eta ingurumenekoak: (aintzinasuna, erregaia, ibilbidea, ingurumen ezaugarrien araberako zerga hobariak izatea):	6,6	4,4.
	46,6 puntu	12,4 puntu



2. zk.ko. lotea: HORMIGOIAREN HORNIDURAREN KONTRATAZIOAN, PROZEDURA IREKI BIDEZ, PARTE HARTZEKO PROPOSIZIOA, HAINBAT HERRI BIDEREN AURRETIAZKO MANTENTZE- ETA KONTSERBAZIO- LANAK EGITEKO.

IPARRAGIRRE ERAIKUNTZA LANAK, S.L.	
A) Automatikoki ebaluagarriak ez diren irizpideak: 49 puntu	
Horniduraren deskripzioa: osaketa, berezitasun eta ezaugarri tekniko, funtzional, eta ingurumenekoak	Aenor-en hormigoiairen ziurtagiria aurkeztu dute
Garraioaren programa eta hornidura eskuragarri jartzeko epea	Ez dute hornidura epeen proposamenik ez eta programarik aurkeztu.
Arreta pertsonalizatua, komunikazio eta gorabeherak konpontzeko protokoloa	Pertsona baten kontaktua aurkeztu dute. Ordutegia: 8:00-18:00
Dumper-ren ezaugarri tekniko eta ingurumenekoak: (aintzinasuna, erregaia, ibilbidea, ingurumen ezaugarrien araberako zerga hobariak izatea):	Camión hormigonera transformado en camión basculante – 2003 urtea Diesela Tracto camión – 2002 urtea Diesela.

IPARRAGIRRE ERAIKUNTZA LANAK, S.L.	
A) Automatikoki ebaluagarriak ez diren irizpideak: 49 puntu	
Horniduraren deskripzioa: osaketa, berezitasun eta ezaugarri tekniko, funtzional, eta ingurumenekoak	4
Garraioaren programa eta hornidura eskuragarri jartzeko epea	0
Arreta pertsonalizatua, komunikazio eta gorabeherak konpontzeko protokoloa	4
Dumper-ren ezaugarri tekniko eta ingurumenekoak: (aintzinasuna, erregaia, ibilbidea, ingurumen ezaugarrien araberako zerga hobariak izatea):	4,4.
	12,4 puntu

Proposatzen diot Kontratazio Mahaiari onartzea.
Idiazabalen, 2017ko ekainaren 22an
Iñigo Imaz Murgiondo



III. 2017ko ekainaren 23an Kontratazio Mahaiak, C gutun azala ireki eta eskaintza ozenki irakurri ondoren, baloratu du eskaintza ekonomikoa eta balore-juizio baten menpe ez dauden gainontzeko irizpideak, administrazio baldintza orriaren 12 . klausulak eta azaldutako honako metodologia hau erabiliz:

TXOSTEN EKONOMIKOA

Gaia: Idiazabalgo udalerriko Etzegarate, Santa Barbara eremuetako eta beste herri bide batzuk aurretiaz mantentzeko eta kontzerbatzeko materialak hornitzeko eta garraiatzeko akordio markoaren lizitazioan aurkeztutako proposamen teknikoaren balorazioa.

Balorazio hau egiten da apirilaren 28ko 159/2017 Alkatetza Dekretuak onartutako administrazio baldintza zehatzen orriaren 12.2 B) klausulak xedatutakoaren arabera.

“12. KONTRATUA ESLEITZE KO IRIZPIDE AK

(Lote bakoitzean erabiliko dira)

B) Automatikoki ebaluagarriak diren irizpideak: 51 puntu

Eskaintza ekonomikoa: 51 puntu

Balorazioa egingo da era honetan:

Atal bakoitzean, puntuaziorik handiena emango zaio prezio merkeena eskaintzen duen proposamenari eta gainontzeko proposamenen puntuazioa ateratzen da formula honetatik: prezio merkeena duen eskaintzaren eta baloratzen den lizitzailearen eskaintzaren arteko zatidura bider irizpideari aplikatu dakizkikeen puntuen kopuru osoa, ateratzen den emaitza. Hau da,

$$PI = Ob/Ol \times 51$$

Non-eta:

Pl: lizitzailearen puntuazioa

Ob: eskaintzarik txikiena

Ol: lizitzailearen eskaintza”

Lizitazio honetarako honako BI lizitzaile hauek aurkeztu dituzte eskaintzak:

1.LOTEA:

- OFITAS DE URRETXU, S.L.U. (2017/06/07an, 319. zk.ia)
- IPARRAGIRRE ERAIKUNTZA LANAK S.L (IZF: B20190674). (2017/06/08an)

2.LOTEA:

- IPARRAGIRRE ERAIKUNTZA LANAK S.L (IZF: B20190674).(2017/06/08an)

A) PUNTUAZIO EKONOMIKOAREN EMAITZA:

- 1. . zk.ko. lotea: **MATERIALEN HORNIDURAREN KONTRATAZIOAN, PROZEDURA IREKI BIDEZ, PARTE HARTZE KO PROPOSIZIOA, ETZEGARATE ETA SANTA BARBARA EREMUEKOTAKO ETA BESTE HERRI BIDE BATZUEN AURRETIAZKO MANTENTZE- ETA KONTSERBAZIO- LANAK EGITEKO**

	OFITAS DE URRETXU S.L.U.	IPARRAGIRRE ERAIKUNTZA LANAK S.L
Eskaintza ekonomikoa	27.900 + %21eko BEZ (5.859,00) = 33.759	24.284,80 + %21eko BEZ (5.099,81) = 29.384,61



Puntuazioa	44,39	51
------------	-------	----

-2 zk.ko. lotea: HORMIGOIAREN HORNIDURAREN KONTRATAZIOAN, PROZEDURA IREKI BIDEZ, PARTE HARTZEKO PROPOSIZIOA, HAINBAT HERRI BIDEREN AURRETIAZKO MANTENTZE- ETA KONTSERBAZIO- LANAK EGITEKO.

	IPARRAGIRRE ERAIKUNTZA LANAK S.L
<u>Eskaintza ekonomikoa</u>	4.800+1.008,00 =5.808,00
<u>Puntuazioa</u>	<u>51</u>

B) PUNTUAZIO GUZTIA: TEKNIKOA + EKONOMIKOA

1- . zk.ko. lotea: MATERIALEN HORNIDURAREN KONTRATAZIOAN, PROZEDURA IREKI BIDEZ, PARTE HARTZEKO PROPOSIZIOA, ETZEGARATE ETA SANTA BARBARA EREMUE TAKO ETA BESTE HERRI BIDE BATZUEN AURRETIAZKO MANTENTZE- ETA KONTSERBAZIO- LANAK EGITEKO

ESKAINZA	GUZTIRA
OFITAS DE URRETXU S.L.U	46,60 +44,39 =90,99
<u>IPARRAGIRRE ERAIKUNTZA LANAK S.L.</u>	12,4 +51 = 63,40

2 zk.ko. lotea: HORMIGOIAREN HORNIDURAREN KONTRATAZIOAN, PROZEDURA IREKI BIDEZ, PARTE HARTZEKO PROPOSIZIOA, HAINBAT HERRI BIDEREN AURRETIAZKO MANTENTZE- ETA KONTSERBAZIO- LANAK EGITEKO.

ESKAINZA	GUZTIRA
<u>IPARRAGIRRE ERAIKUNTZA LANAK S.L.</u>	12,4 +51 = 63,40

Kontratazio-Mahaiak, 2017ko ekainaren 23an egindako bileran, erabaki du kontratazio-organoari honako proposamen hau luzatzea:

LEHENGOA: OFITAS DE URRETXU S.L.Uri 1.loteko “Legarra, hondarrak, birrindutako harriak eta agregakina” hornitzeko kontratuaren esleipen proposamena luzatzea.

BIGARRENA: Iparragirre Eraikuntza Lanak, S.L. enpresaren alde 2. lotea: “Hormigoia” hornitzeko kontratuaren esleipen proposamena luzatzea.



Hala ere, lehengo loteari dagokionez, adierazi behar da bi lizitazailleak lizitaziotik kanpo geratu behar zitezkeela, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak 84. artikuluan xedatutakoari jarraituz, administrazio baldintzen orriak eta preskripzio teknikoak ezarritako baldintzak ez betetzeagatik.

OFITAS DE URRETXU SLU den lehengo lizitazaillearen proposamen ekonomikoak errespetatzen ditu lehengo lotearen prezioa, baina horietatik prezio unitario bat gaingitu du; IPARRAGIRRE CONSTRUCCIONES SLK ez du lanbidezko gaitasuna harrobia ustiatzeko, ez du aurkeztu ingurumen baimenik eta jarduera lizentzia, preskripzio teknikoen orriaren 8. klausulak eskatzen duen moduan eta azpikontratazioa ez du baimentzen administrazio baldintzen orroaren 28. klausulak.

Idiazabalen, 2017ko uztailaren 4an.
IDAZKARI KONTU HARTZAILEAK.- Isabel Fuertes Matxin

Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 151. artikuluan xedaturikoaren arabera, eta ikusirik kontratazio-beharrak eta OFITAS URRETXU S.L.U.k eskaintzarik onena aurkeztu duela, honakoa

EBAZTEN DUT

LEHENA. OFITAS DE URRETXU S.L.U hautatzea, 1. zk.ko lotea: "ETZEGARATE ETA SANTA BARBARA EREMUETAKO ETA BESTE HERRI BIDE BATZUEN AURRETIAZKO MANTENTZE-ETA KONTSERBAZIO- LANAK EGITEKO MATERIALEN HORNIDURAREN ESPARRU-MARKOtik letozkeen kontratuak esleitzeko.

Akordio markoa formalizatu eta gero, prezio unitarioak erabiliko dira kontratuaren esleipen guztietan.

Hornidura hauek, Baldintza Administratibo zehatzen orri eta zehaztapan teknikoen arabera egingo dira, udaletik haiek betetzeko esleipedunari emango zaizkion argibideak jarraituz.

BIGARRENA.- Kontratuaren prezioa **HOGEITA HAMAHIRU MILA BOSTEHUN ETA HIRUROGEITA BOST EURO ETA BERROGEI ZENTIMO (33.565,40 €)**koa izatea (horietatik, 27.740 € printzipalari dagokio eta 5.825,40 € %21eko BEZari) ondorengo izatea:

Hornigaiak	€/Tn	Prezioa (BEZarik gabe)	Prezioa (BEZ-rekin)
200 Tn Harri koskor (Morrillo)	11€/Tn	2.200 €	2.662 €
1.040 Tn Balasto	9,00 €/Tn	9.360 €	11.325,60 €
300 Tn Zagorra, todo uno	8,00 €/Tn	2.400 €	2.904,00 €
360 Tn Gainontze koa	3 €/Tn	1.080 €	1.306,80 €
200 Tn Harri lubetak	11,00 €/Tn	2.200 €	2.662,00 €
2.100 Tn Garraioa	5 €/Tn	10.500 €	12.705 €
		27.740	33.565,40

Idiazabalgo Udala

(GIPUZKOA)



Hornidura hori, honako aurrekontu izendapen honen lepotik ordainduko da: 1.210.00.454.00 2017

Fakturretan agertu beharko dira horniduraren gastuak sailkatuta, eta pleguek ezarritako baldintzak beteko ditu.

Kontratuaren iraupena urtebetekoa (1) izatea, hitzarmena sinatu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Ez da luzagarria izango.

HIRUGARRENA. Pello Unanue Imaz jauna (Udal Brigadaren arduraduna) kontratuaren arduraduna izendatzea.

LAUGARRENA.- Erabaki hauek lizitatzailerai, kontratuaren arduradunari eta Kontabilitate unitateari jakinaraztea.

BOSGARRENA.- Esleipendunari errekeritzea **gehienez hamabost laneguneko epean** akordio marko hau formalizatzerara etor dadin Idiazabalgo udaletxera.


SEIGARRENA.- Kontratuaren formalizazio iragarkia Idiazabalgo Udaleko kontratatzailearen profilean argitaratzea.

ZAZPIGARRENA. Udalbatzari horren berri ematea egingo duen lehengo bileran.

E bazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari.

ALKATE UDALBURUAK

Ioritz Imaz ~~Bazterrika~~



Nire aurrean,
IDAZKARI KONTU-HARTZAILE
Isabel Fuertes Matxin